



65. EUSKAL SOZIOMETROA: ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA (2017ko abendua) Prensa oharra

SARRERA

65. Euskal Soziometro honen gaia EAEko herritarrek zientziari eta teknologiarri buruz dituzten jarrera eta iritzia jasotzea izan da. Landa lana 2017ko urriaren 24a eta 30a bitartean egin zen.

EGOERAREN BALORAZIOA

Euskadiko egoera politikoaren pertzepzioa inoiz jasotako onena da

Euskadiko egoera politikoaren pertzepzioa, 2002an hasitako bilduma osoan inoiz jasotako onena da. Herritarren %60ren ustez egoera ona edo oso ona da eta %28ren ustez, aldiz, txarra edo oso txarra.

Euskadiko egoera ekonomikoa ere positiboki ikusten da, aurreko neurketatik aldaketa handirik gabe. Herritarren %64k uste dute egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela eta %31k txarra edo oso txarra dela.

EAEko biztanleen %69k diote ez dutela zailtasunik hilabete bukaerara iristeko; %29k, aldiz, badituzte. Arazo hau aurreko bi neurketetan baino jende gutxiagok dauka; 2009an %32k eta 2013an %35ek.

EAEko arazo nagusiak lan merkatuarekin lotutakoak dira, gainerakoen oso gaineratik (%67k aipatu dituzte hiru arazo nagusien artean). Hala ere, arazo hau indarra galtzen ari da, eta 2008tik jasotako kopuru txikiena da oraingoa. Arazo ekonomikoa eta egoera politikoa doaz ondoren (%13 biek) eta atzetik etxebizitza eta etxe-gabetzeak (%10) eta zerbitzu publikoen estaldura eta funtzionamendua eta laguntzak (%7).

Herritarren %73k diote Espainiako Gobernua gaizki edo oso gaizki aritu dela Kataluniako independentziarako prozesuan eta iritzi hori bera dute Generalitateari buruz %61ek.

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Zientziak eta teknologiak onura gehiago ekartzen ditu kalteak baino

Herritarren %51k diote zientzia eta teknologia dezente edo asko interesatzen zaiela, 1etik 5erako eskalan 3,4ko batez besteko interes maila adierazi dute herritarrek. 2012tik hona handitu egin da gai honekiko interesa, orduan batezbestekoa 3,0koa zen.

Zientzialarien gizarte balorazioa handitu egin da 2006tik hona; 5 punturen gaineko 4,0ko batezbestekotik gaur egungo 4,4ra igoz. Medikuenaren ondotik, gehien baloratzen den bigarren lanbidea da.

Landide horren zenbait ezaugarriren balorazioa gorabeheratsua da: herritarren erdiek baino gehiagok uste dute gazteentzat erakargarria dela (%57) eta norberarentzat aberasgarria dela (%55); %55en ustez gizartearen errekonozimendu eskasa du eta %51ren ustez gaizki ordaindua dago.

Herritarren erdiek (%51) uste dute zientzia eta teknologiaren onurak kalteak baino handiagoak direla, %28k uste dute orekatuta daudela eta %7ren iritziz kalteak handiagoak dira onurak baino.

Hala ere, zientzia eta teknologiaren aplikazio zehatz batzuei buruzko balantzea ez da hain positiboa. Klonazioa, energia nuklearra, genetikoki eraldatutako organismoen hazkuntza eta frackingari buruz, gizarte iritzia kritikoagoa da.

2006tik hona igotzen joan da formazio altua edo oso altua dutela uste dutenen ehunekoa. Herritarren %41k uste dute heziketa zientifiko-teknologiko normala jaso dutela, %18k formazio altua edo oso altua jaso dutela eta %38k baxua edo oso baxua.

Zientifikoak ez diren zenbait sinesmeni dagokienez, gizarteko iritzi zabalduena konfiantzarik eza da. %19k bakarrik daude ados homeopatiako produktuak eraginkorrak direla esatean; %13k asko edo dezente sinesten dute fenomeno paranormaletan; %9k konfiantza asko edo dezente dute petrikiloengan; %8k asko edo dezente sinesten dute zenbaki eta gauza batzuek zortea ematen dutela eta %5ek sinesten dute horoskopoen aurreikuspenetan. Ehuneko altuena akupunturarekin azaltzen da, herritarren %25ek uste dute funtzionatzen duela, eta %36k, aldiz, ez dute hala uste.

JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

Eusko Jaurlaritzak autogobernuari buruz duen jardueraren balorazio ona

EAJ da berriz ere begikotasun handiena sortarazten duen alderdia (4,6 0tik 10erako eskalan). Ondoren datoz EHBildu (3,5), Elkarrekin Podemos (3,4) eta PSE-EE (3,1). Azken lekuan mantentzen da PP (1,5).



Buruzagi politikoei dagokienez, Urkullu Lehendakaria da 5 puntutik gorako balorazioa lortu duen bakarra (5,3); atzetik datoz Andoni Ortuzar (4,6), Nagua Alba (3,9), Arnaldo Otegi (3,8), Idoia Mendia (3,7) eta azkenik Alfonso Alonso (2,0).

Euskadik autogobernu handiagoa izatea ekonomiarentzat, zerbitzu publikoentzat, elkarbizitzarentzat eta euskal identitatearentzat ona litzatekeela uste dutenena da iritzi zabalduena. %30ek gaur egungoa baino autogobernu handiagoa aipatu dute Euskadirentzat nahiago luketen aukera bezala, %36k gaur egungo autogobernu maila mantenduko lukete eta %3k egungoa baino autogobernu gutxiago. Herritarren %17k erabateko independentzia aipatu dute nahiago luketen aukeratzat eta %13k ez dute iritzirik eman.

Herritarren %58ren ustez Eusko Jaurlaritza ondo edo oso ondo jokatzen ari da autogobernuaren gaian, %19ren iritzi gaizki edo oso gaizki ari da eta %23k ez dute iritzirik eman. Jarduera horri buruzko iritzi positiboa 8 puntutan hobetu da 2014tik hona.

Euskadiko hiru biztanletik bik (%67) uste dute Autonomia Erkidego baten etorkizunari buruz erabaki behar dutenak bertako herritarrak direla; aldiz, %24ren iritzi Espainiako herritar guztiek erabaki behar dute. Emaitzak 2014koen oso antzekoak dira.

Herritarren %59k Euskadin Espainiaren harremanari buruzko kontsulta bat egin dadin nahi dute; %28k soilik horretarako Espainiako Gobernuarekin akordioa balego, eta %31k edozein kasutan. %24k ez dute kontsulta hori egiterik nahi eta %17k ez dute erantzun. Akordioarekin zein akordiorik gabe erreferenduma nahi luketenen ehunekoa nabarmen murriztu da 2014tik.

Dena dela, herritarren gehiengoak, bai 2014an (%80) bai orain (%76) uste dute aukera gutxi edo batere ez dagoela datozen urteotan erreferenduma egiteko halako akordio bat egiteko Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuaren artean.

Espainiako Gobernuarekin akordioa lortuta erreferenduma deituko balitz, herritarren %33k independentziaren aldeko botoa emango lukete, beste horrenbestek independentziaren kontrakoa, %12k ez lukete bozkatzeko eta %22k ez dakite edo ez dute erantzun zer egingo luketen. Independentziaren aldeko botoa emango luketenen ehunekoa murriztu egin da aurreko neurketekin alderatuta; handitu egin da, aldiz, kontrakoa emango luketenen.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 2.295 lagunek osatua da. Elkarrizketak aurrez-aurre egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 2,1$ ekoa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2017ko urriaren 24tik 30era bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 7an